



**OSAKIDETZA EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO
KONTSEILUAREN 2017KO IRAILAREN 14KO BILERAREN AKTA**

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetzaren egoitzan bertan, Gasteizen, 2017ko irailaren 14ko 09:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

BERTARATUAK

PRESIDENTEA

Jon Darpón Sierra jauna

LEHENDAKARIORDEA:

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea

IDAZKARIA

Daniel Salazar Irusta jauna

Bestalde, Kontseiluaren bilerara deitu da, presidenteak gonbidatuta, María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusia.

GAI-ZERRENDA

1.- Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendaritza-karguen ordainsariaren igoera.

LEHENENGOA.- Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendaritza-karguen ordainsariaren igoera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasuna Antolatzeko Legearen 27.3 artikulua xedatzen duenez, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoan zuzendaritzako langileen ordainsari-erregimena administrazio-kontseiluak ezarritakoa izango da eta, nolahi ere, urriaren 28ko 14/1988 Legeak, Goren-Kargudunen Lansariei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta arloan aplikatu behar diren gainerako xedapenek ezarritako mugak bete beharko dituzte.

Urriaren 28ko 14/1988 Lege horren 4. artikulua xedatzen duenez, autonomia-erkidegoko zuzenbide pribatuko sozietate publiko eta erakunde publikoetako zuzendaritza-karguen ordainsari finakoak eta aldizkakoak, antzintasunagatik legezkiekeen zenbatekoak salbuetsita, euren administrazio-kontseiluek ezarriko dituzte, eta bereizita agertuko dira ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen legearen barruan dagokien partidan. Ordainsari horiek ezin dituzte inolaz ere gainditu sailburuorde karguarentzat ezarritakoak.

Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak, zuzenbide pribatuko entitate publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzen duenak (indarrean, ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, hirugarren b) xedapen iragankorrean xedatzen duenez), hau dio 6. artikuluan: *"kasuan kasuko organo artezkariak edo administrazio kontseiluak ezarriko du zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen ordainsari-araubidea. Kontzeptu guztiengatik, orotara hartuta eta datorren atalean aipatzen diren pizgarriak barne, jaso daitekeen gehienezko ordainsaria urteroko aurrekontu-legeak adierazitakoa izango da."*

Bestalde, Osakidetza erakunde publikoaren Estatutuek (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua), antolakunde nagusiaren eskumenetan -8. artikuluko 5.h) letra-, ente publikoko zuzendarien lansariak ezartzea xedatzen dute, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 27.3 atalaren ildotik.

Apirilaren 11ko 2/2017 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta, 74. zenbakian, 2017ko apirilaren 19an) 23. artikuluan xedatzen duenez, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, sozietate publikoetako, eta Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoetako zuzendaritzako langileen 2017ko ekitaldirako lansariak % 1eko igoera izan ahal izango dute, behin-behinean eta aldi baterako, 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean, antzinasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe, bai eta beren lansariak erreferentziatuta dauden kategoriaren gehikuntzari kalterik egin gabe ere.

Horretarako, Osakidetza erakunde publikoko zuzendari nagusiak aurkeztutako proposamena ikusita eta administrazio-kontseilu honen eskumenak, arestian aipatutako araudian ezarritakoak, betez, apirilaren 11ko 2/2017 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, erabaki hau hartzen da:


ERABAKIA

Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoko zuzendaritzako langileen 2017ko ekitaldirako lansariak % 1eko igoera izango dute, 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean, antzinasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe, bai eta beren lansariak erreferentziatuta dauden kategoriaren gehikuntzari kalterik egin gabe ere. Ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik hasiko dira.

Jorrazteko gai gehiagorik gabe, akta honen datako 9:30ak direnean, bilera amaitutzat ematen da.



Izp.: Daniel Salazar Irusta jauna
IDAZKARIA



Izp.: Jon Darpón Sierra
PRESIDENTEA

ERANSKINA
OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZAKO LANGILEEN LANSARIEN TAULA - 2017. URTEA -

Zerbitzu erakundea		Zuzendaritza postua	URTEKO ZENBATEKOA 2017	HILEKO ZENBATEKOA 2017
Zuzendaritza nagusia		Zuzendari nagusia	80.255,28	5.732,52
		Asistentzia Sanitarioko zuzendaria	75.538,41	5.395,60
		Ekonomia eta Finantzako Dibisio Korporatiboko zuzendaria	74.569,31	5.326,38
		Giza Baliabideetako Dibisio Korporatiboko zuzendaria	74.569,31	5.326,38
1. taldea	ESI Araba ESI Donostialdea ESI Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta	Zuzendari gerentea	79.455,59	5.675,40
		Integrazio Asistentzialeko zuzendaria	75.487,40	5.391,96
		Zuzendari medikoa	75.487,40	5.391,96
		Erizaintzako zuzendaria	64.358,11	4.597,01
		Zuzendari ekonomiko-finantzarioa	72.702,53	5.193,04
		Pertsonaleko zuzendaria	72.702,53	5.193,04
2. taldea	ESI Bilbo-Basurto ESI Barrualde-Galdakao Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Zuzendari gerentea	76.242,27	5.445,88
		Integrazio Asistentzialeko zuzendaria (EZ Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean)	72.427,10	5.173,36
		Zuzendari medikoa	72.427,10	5.173,36
		Erizaintzako zuzendaria	58.706,76	4.193,34
		Zuzendari ekonomiko-finantzarioa	68.397,71	4.885,55
		Pertsonaleko zuzendaria	68.397,71	4.885,55
3. taldea	ESI Debagoiena ESI Bidasoa ESI Debabarrena ESI Goierri Garaia Urola ESI Barakaldo-Sestao ESI Uribe	Zuzendari gerentea	71.427,40	5.101,96
		Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendaria	67.857,05	4.846,93
		Erizaintza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendaria	50.994,80	3.642,49
		Zuzendari ekonomiko-finantzarioa	60.716,35	4.336,88
		Pertsonaleko zuzendaria	60.716,35	4.336,88
4. taldea	Arabako Osasun Mentaleko Sarea Santa Marina Ospitalea Gorliz Ospitalea	Zuzendari gerentea	65.572,03	4.683,72
		Zuzendari medikoa	62.950,37	4.496,46
		Erizaintzako zuzendaria	47.863,09	3.418,79
		Zuzendari ekonomiko-finantzarioa	55.738,26	3.981,30
		Pertsonaleko zuzendaria	55.738,26	3.981,30
	ESI Arabako Errioxa-Rioja Alavesa	Zuzendari gerentea	65.572,03	4.683,72
		Erizaintzako zuzendaria	47.863,09	3.418,79
		Kudeaketa zuzendaria	55.738,26	3.981,30
	Larrialdiak TGE Euskal Zentroa ESI Tolosaldea	Zuzendari gerentea	65.572,03	4.683,72
		Kudeaketa zuzendaria	55.738,26	3.981,30
	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea	Zuzendari gerentea	65.572,03	4.683,72